

# JOSTAILU EZ



# SEXISTEN GIDA

GENERO SISTEMAK DIRA GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO HIERARKIAK AHALBIDETZEN DITUEN JENDARTE ANTOLAKETA, BAINA, ERA BEREAN, SEXUALITATE EREDU BATZUK GAILENTZEN DITUENA. HORRELA, IDENTITATE BATZUK ETA HARREMAN MOTA BATZUK BOTERE KOKAPEN PRIBILEGIATUA DUTE, BESTE BATZUEKIN ALDERATUTA. GENEROAREN ARABERAKO SOZIALIZAZIO PROZESUEN ONDORIO DIRA EMAKUME ETA GIZONEN JOKATZEKO MODUEN ALDAERAK. HAURTZAROA GARAI OPAROA DA IDEA HORIEK GUZTIAK BARNERATZEN HASTEKO, BAINA GAINERAKO ADINETAN ERE GENERO IKASKETA HORREK JARRAITZEN DU.



JOLASEK ETA JOSTAILUEK, BEREZ, EZ DUTE GENERORIK; BAINA GENERO EREDU ERREFERENTEAK BULTZATZEN DITUZTE. GUSTUAK DIRELA ESANEZ NATURALIZATU EGITEN DA HAURREN JOLAS EZBERDINDUEN HAUTAKETA; BAINA HAURRAK ETENGABE JASOTZEN DITUZTE MEZUAK "MUTILEN JOSTAILUAK" EDO "NESKEN JOSTAILUAK" AUKERATZEKO. URDINA ETA ARROSA, ZAINZA ETA ETXEKO LANEI LOTUTAKO JOLASAK KOLORE ARROSEZ ETA LEHIA ETA KUTSU OLDARKORRA DUTEN JOLASAK URDINAREKIN AGERTZEN DIRA. BIZI-GIDA BEZALA FUNTZIONATZEN DUTE, JOSTAILU ETA JOLASEN BIDEZ ETORKIZUNERAKO PRESATZEN DIRA: GIZON ETA EMAKUME IZATEN IKASTEN DUTE, EMAKUME EDO GIZON IZATEAGATIK ITXAROBIDE EZBERDINAK IZANIK.

